



ARABAKO EKONOMIA: ***Egoeraren adierazleak***

2023ko Maiatza

www.araba.eus





AURKIBIDEA

1. EKONOMIA INGURUNEA	3
2. ARABAKO EKONOMIA	7
2.1. KANPO MERKATARITZA	8
2.2. BENETAKO BARNE PRODUKTU GORDINA	9
2.3. INDUSTRIA EKOIZPENA	10
2.4. INDUSTRIA EGOERA	11
2.5. ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA	13
3. LABURPEN TAULA. ADIERAZLE NAGUSIAK	14



EKONOMIA INGURUNEA

- Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) joan den apirilean argitaratutako aurreikuspen ekonomikoei buruzko azken txostenaren arabera, badirudi munduko ekonomia suspertzen ari dela, baina poliki-poliki, pandemiaren eta Errusia Ukrainan egiten ari den gerraren ondoren.
- Munduko hazkundea % 2,8ra jaitsiko da aurten, 2022an erregistratutako % 3,4aren ondoren, eta % 3,0ra igoko da 2024an. Munduko inflazioa jaitsi egingo da, baina aurreikusitako abiaduran baino motelago, hain zuzen, 2022ko % 8,7tik % 7,0ra jaitsiko da aurten eta %4,9ra 2024an.
- Aurreko zifrak ekonomia garatueneren dezelerazio handiko testuinguruan agertzen dira (2023rako % 1,3ko hazkundearen aurreikuspena), batez ere eurogunean eta Erresuma Batuan, goraka doazen ekonomien hazkundeak konpentsatuta (2023rako % 3,9ko aurreikuspena).
- NDFk hiru arrazoi eman ditu Europa bezalako eskualdeen hazkunde txikia azaltzeko (eurogunea % 0,8 haziko da 2023an eta % 1,4 2024an): Errusiak Ukraina inbaditzea, covid aldaera kutsakorren agerraldia eta finantza baldintzen gogortzea.



EKONOMIA INGURUNEA

- Ekonomia nagusiak, hau da, Alemaniarenak, bultzatu du hazkunde txikia, NDFren arabera % 0,1 jaitsiko delako 2023an; izan ere, herrialderako aurreko zenbatespena bi hamarren murriztu du. 2024an, % 1,1 haziko da, urtarrilean kalkulaturakoa baino hiru hamarren gutxiago. Nazioarteko Diru Funtsak urte honetarako Frantziaren hazkundera % 0,7 izateko aurreikuspenari eutsi dio, eta 2024rako, berriz, hiru hamarren jaitsi du, % 1,3raino. Italiaren kasuan, hamarren bat igo da aurtengoa, % 0,7raino, eta hamarren bat jaitsi da 2024koa, % 0,8raino.
- Erresuma Batuari dagokionez, iragarpenak oraindik ere negatiboak dira; izan ere, ekonomia britainiarrak % 0,3 egingo du behera aurtan, nahiz eta Nazioarteko Diru Funtsak hiru hamarren hobetu duen datua, urtarrileko aurreikuspenekin alderatuta. Nazioarteko Diru Funtsak datorren urtean herrialdea % 1 haztea espero du, aurrez espero zena baino hamarren bat gehiago.
- Nazioarteko Diru Funtsaren arabera, Espainiako ekonomia % 1,5 haziko da aurtan, joan den urtarrilean aurreikusitakoa baino lau hamarren gehiago. Horrenbestez, euroguneko batez bestekoa ia bikoiztu egingo du, eta Europako herrialde handien artean eragile nagusia izango da. Hala ere, 2024rako, lau hamarren murriztu du espero zen hazkundera, % 2raino.



EKONOMIA INGURUNEA

- Inflazioari dagokionez, Nazioarteko Diru Funtzak aurreikusten du Espainiaren kasuan aurten ia erdira jaitea eta batez beste % 4,3an kokatzea, eta datorren urtean % 3,2raino jaisten jarraitzea. Eurogunean, erakundearen aurreikuspenak % 5,6 eta % 3 dira 2023rako eta 2024rako, hurrenez hurren.
- Espainiako Gobernuak apirilean argitaratutako azken aurreikuspenen arabera, Espainiako BPGd-a % 2,1 haziko da 2023an, eta 2024an % 2,4 haztea espero da. Zor publikoari dagokionez, Gobernuak espero du 2023an BPGd-aren % 111,9koa izatea, eta 2024an % 109,1ekoa. Halaber, 2023rako eta 2024rako BPGd-aren % 3,9ko eta % 3ko defizita kalkulatu du, hurrenez hurren.
- Estatistika Institutu Nazionalak dioenez, Espainiako ekonomiak 2023ko lehen hiruhilekoan bere BPGd-aren urte arteko % 3,8ko hazkundera izan zuen; aurreko hiruhilekoan %2,9koa izan zuen, eta 2022ko lehen hiruhilekoan, % 6,5ekoa.



EKONOMIA INGURUNEA

- Bestalde, Eustatek aurreratutako azken informazioaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko BPGd-ak urtetik urterako % 2,2ko hazkunde positiboa izan zuen 2023ko lehen hiruhilekoan; aurreko hiruhilekoan % 2,9koa izan zuen. BPGd-aren bilakaerak adierazten du Euskadi dezelerazio fasean dagoela 2022ko hasieratik, eta une horretan hazkundea % 5,8ra iritsi zela.
- Martxoan, Eusko Jaurlaritzak Euskadiko 2023rako eta 2024rako hazkunde ekonomikoaren aurreikuspenak berrikusi ditu. Espero da euskal ekonomiaren hazkundea aurten % 1,5ekoa izatea, nazioarteko ingurunea ahuldu egin delako, eta 2024an % 2,1era igotzea.



ARABAKO EKONOMIA

- 2022aren amaieran, Arabako esportazioak eta inportazioak nabarmen hazi ziren, % 27,3 eta % 26,4, hurrenez hurren. 2023ko lehen hilabeteetan, eta eskura dauden azken datuen arabera, Arabako kanpo merkataritzak hazkunde positiboak izaten jarraitzen du. Horrela, urteko lehen hiruhilekoan esportazioek % 31,3ko hazkunde metatua izan dute eta inportazioek, berriz, % 12,1ekoa.
- Arabako industria jarduera ere portaera positiboa izaten ari da, nahiz eta hazkunde erritmoa 2022an batez beste izandakoa baino zertxobait txikiagoa izan (% 5,3). Industria ekoizpenaren indizeari buruz argitaratutako azken datuak adierazten du hazkunde metatua % 4,9koa izan dela urteko lehen hiruhilekorako, egutegi eraginak zuzendu ondoren.
- 2023ko datuak falta direla, Arabako ekonomiak 2022. urtearen amaieran % 4,3ko hazkundea izan zuen Barne Produktu Gordinean, 2021ean baino %1,6 gutxiago.
- Inflazio tasa altuak izaten jarraitu arren, 2023ko apirilko tasa (% 3,6) 2022koa (% 4,9) eta 2021ekoa (% 6,8) baino txikiagoa da.



Kanpo Merkataritza

(Urtearteko bariazio tasa)


	2021	2022 (*)	2023ko metatua (*)	Azken datua (*)	Data
Esportazioak	19,1	27,3	31,3	40,3	23-martxoa
Inportazioak	18,6	26,4	12,1	23,9	23-martxoa
Estaldura Indizea (%)	162,1	163,2	178,7	165,4	23-martxoa

Arabako esportazioek % 31,3ko hazkunde metatua izan dute 2023ko lehen hiruhilekoan, eta inportazioek % 12,1ekoa.

Iturria: Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa, Aduanetako Idazkaritza

(*) Behin-behinekoa

Urtearteko hazkundea






Benetako Barne Produktu Gordina

Arabako BPGd-ek % 4,3ko urte arteko hazkundera izan zuen 2022an. Tasa hori ehuneko 1,6 puntu txikiagoa izan zen 2021ean lortutakoa baino (% 5,9). Datu horrek urteko azken hilabeteetan batez ere izandako desazelerazio arina berresten du, inguruko ekonomien bilakaerarekin bat etorritz.

Bestalde, adierazi behar da, halaber, ekonomiek 2021ean izandako hazkundera, neurri handi batean, urteko bigarren hiruhilekoan izandakoaren ondorio izan zela, 2020ko hiruhileko berarekin alderatuta; izan ere, azken aldi hori bat etorri zen, neurri handi batean, COVIDaren pandemiak eragindako konfinamendu denborarekin.




Iturria: EUSTAT
(*) behin-behinekoa



Industria Ekoizpena

Eustaten datuen arabera, eta lan egutegi homogeenari dagokionez, Arabako industria ekoizpena, 2023ko lehen hiruhilekoan, 2022an hil berean izandakoa baino % 4,9 handiagoa izan da.

IEA. Urterako hazkundea




Iturria: EUSTAT



Industriaren Egoera

2022ko laugarren hiruhilekoko Industriaren Egoerari buruzko Inkestaren arabera, enpresek eskaera zorroa murriztu zuten, eta ez zen espero epe laburrean berreskuratzea. Abenduaren amaieran, enpresen % 35ek soilik uste zuten beren eskaera zorroa egokia zela, eta fabrikatutako produktuen stockak egonkor mantentzen zituzten.


Arabako industriaren konfiantzaren adierazlea



Iturria: Arabako Merkataritza eta Industria Ganbera



(BPG ETA IEA) BILAKAERA



(Urtearteko bariazio tasa)


	2020				2021				2022			
	I	II	III	IV	I	II	III	IV	I	II	III	IV
ARABA												
BPG	-3,5	-21,8	-8,7	-7,8	-2,6	2,8	2,2	3,2	20,7	4,9	3,9	2,7
IEA	-7,1	-30,0	-9,0	-5,6	-1,6	2,5	-8,6	4,3	32,6	9,1	3,7	2,1
EAE												
BPG	-3,0	-19,8	-8,1	-7,5	-2,8	2,6	2,4	3,0	19,1	5,0	3,8	2,9
IEA	-5,6	-27,6	-12,0	-7,2	-0,6	1,9	-2,5	3,7	32,7	7,4	4,2	3,3
ESTATUA												
BPG	-4,7	-21,9	-9,2	-9,5	-4,4	2,5	2,3	3,1	17,8	7,7	4,8	2,9
IEA	-6,6	-24,2	-5,2	-2,0	2,8	0,3	-2,8	5,2	26,3	5,0	4,4	1,5



Erregistratutako Langabezia

Langabezia jaitsi egin da Araban apirilean, 311 pertsona gutxiago, % 1,61. Jaitsiera horrekin, langabeen guztizko kopurua 19.055 da. Aurreko urtearen aldean, langabezia % 3,19 jaitsi da, 628 pertsona gutxiago.

Sektoreka, Araban, aurreko hilaren aldean, langabetuen kopurua jaitsi egin da guztietan. Iazko hil berarekin alderatuz gero, langabeziak sektore guztietan egin du behera, zerbitzuen sektorean izan ezik.





Laburpen Taula. Adierazle Nagusiak

(Urtearteko bariazio tasa) (%)

	2021	2022	2023ko metatua	Azken datua	Data
BPG					
Estatua	5,5	5,5		2,9	22-IV Hi
EAE	5,9	4,4		2,9	22-IV Hi
Araba	5,9	4,3		2,7	22-IV Hi
IEA					
Estatua	7,3	2,9	1,5	5,6	23-martxoa
EAE	10,4	5,7	1,5	6,2	23-martxoa
Araba	8,0	5,3	4,9	9,7	23-martxoa
KPI					
Estatua	6,5	5,7		4,1	23-apirila
EAE	6,4	5,4		4,2	23-apirila
Araba	6,8	4,9		3,6	23-apirila
ESPORTAZIOAK					
Estatua	19,4	23,6	14,6	17,7	23-martxoa
EAE	23,2	26,9	20,8	26,5	23-martxoa
Araba	19,1	27,3	31,3	40,3	23-martxoa
ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA					
Estatua	-20,1	-8,6		-7,8	23-apirila
EAE	-11,1	-3,5		-6,5	23-apirila
Araba	-10,6	-2,1		-3,2	23-apirila

Datu absolutuak (%)

LANGABEZI TASA EPA Inkesta (INE)					
Estatua	14,8	12,9		13,3	23-I Hi
EAE	9,8	8,6		8,4	23-I Hi
Araba	10,5	8,8		6,4	23-I Hi
LANGABEZI TASA BJA Inkesta (EUSTAT)					
EAE	10,0	8,5		8,7	23-I Hi
Araba	10,6	9,5		8,8	23-I Hi

Iturriak: INE, EUSTAT, SEPE, Aduenetako Merkataritza